

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Inazio Intxausti Ormaetxea

*Gernika-Lumo,
Bizkaia
(1935-2021)*

Aurkibidea



Biografia



1935ean jaio zen gaur egun [merkatu-plaza](#)ko arrandegia dagoen tokian. Aita nabarniztarra zuen eta ama Ereñokoa. Sei anaietatik bigarrena da bera, aitaren bigarren ezkontzakoa. Bonbardaketa ostean, etxe barik gelditu zirenez, Ereñora joan ziren eta handik [Erreterria](#) auzora. Sei urte zituenean bere aitak Bekoibarran eraikitako etxera etorri ziren eta ordudanik bertan bizi izan da. Umetan, karmeldarren eskolan, Otazuaren eskolan eta Makalaren klase partikularretan kontabilitatea ikasten ibili zen. [Andra Mari](#)ko elizan meza-laguntzaile bezala aritu zen urte askoan. Aitak zerrategia zuen [Bekoibarra](#)ko etxe ondoan eta 16 urterekin bertan hasi zen lanean etxeko gainerakoekin. Urte askoan kamioi-gidari legez ibili zen lanean zerrategirako eta baita hortik kanpo ere. 1960. urtean, aitak zerra alokatu zuen eta beranduago Marcos Ormaetxeari saldu zion, gaur egun Losal lantegia dagoen tokian. Gaztetatik lanean ibili arren, ezkondu osterara arte ez zuen jornalik izan. Orduan obretarako kamioia erosi zuen eta 1983ko uholdeen ostean lan egiteko eraikuntza-enpresa moduan hasi ziren lanean. Ordudanik herriko hainbat lanetan parte hartu du: kaleak konpontzen, polikiroldegian, futbol-zelaian...

Zintak

GER-039

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

- **Data:** 2010-06-24
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Presoak Gernika berreraikitzen

- **Erref:** GER-039/001
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Urte eta erdi zuen bonbardaketan. Gero presoak ibili ziren etxeak eraikitzen eta horixe du gogoan.

2. Karmelitetan eta partikularretan

- **Erref:** GER-039/003
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:02:28. **Bukatu:** 00:05:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eskolan mojekin ibili zen, karmelitekin. Eskola partikularretan ere ibili zen. Don Pedro apaizak zartakoak ematen zizkien; lehenengo formatu egiten ziren eta gero Cara al Sol abesten zuten. Hermana Maria zen bere irakaslea. Aitak zerrategia zuenez, lau anaiak ibili ziren karmelitetan.

3. Umetan karramarroak batzen etxekoekin

- **Erref:** GER-039/005
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:05:43. **Bukatu:** 00:07:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Domeka goizetan karramarrotan ibiltzen ziren aita eta amarekin erredera joanda. Lagunekin futbolekin ibiltzen zen. Udan Nabarnizera joaten ziren eta han aritzen ziren pilotan. Eskolatik etxera eta etxetik eskolara ibiltzen zen.

4. Otazuaneko eskolan

- **Erref:** GER-039/006

- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:07:19. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Otazuanera joan zirenean, hamaika urte inguru zituen. Hiru urte eman zituen eta neska-mutilak elkarrekin egoten ziren. Eskola non zegoen kontatzen du. Otazuaneke maistrak ematen zituen eskolak. Etxean zerrategia zutenez, hantxe laguntzen aritzen zen.

5. Makalarekin partikularretan

- **Erref:** GER-039/007
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:14:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Otazuanean bukatuta, Makalanera joaten zen kontabilitatea ikastera. Luis Zabarte "Makala" zen irakaslea. Gerran tenientea izan zen, preso egon zen, Bartzelonan bizi eta etorritakoan eskola jarri zuen. Adin nagusikoagokoak ibiltzen ziren. Neskak ere ibiltzen ziren. Lantegi edo dendetako ugazaben seme-alabak ibiltzen ziren.

6. Zerrategia itxi eta kamioilari

- **Erref:** GER-039/008
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:14:19. **Bukatu:** 00:16:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Ikasketak bukatuta, zerrategian aritu zen lanean. Ondoren, soldadutza egin zuen bi urtez. Handik etorruta, zerrategia itxi eta kamioia erosi zuten, kamioilari lanetan aritzeko. Ezkondu artean ibili zen lan horretan.

7. Basoan atxurra, aizkora eta trontzarekin

- **Erref:** GER-039/010
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:18:51. **Bukatu:** 00:22:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Anai zaharrena eta biak aita batekoak baina ama bikoak ziren. Herentzia bat jaso zuen anai zaharrenak eta harekin kamioi bat hartu ahal izan zuenean, zerrategitik joan zen. Basorako pistak atxurrarekin egiten zituzten eta aizkora

eta trontza izaten ziren mozteko tresnak. Zerrategia alokatu egin zuten eta kamioia erosi. Gero saldu egin zuen.

8. Goizeko bostetan gurasoak sorora lanera

- **Erref:** GER-039/012
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:24:47. **Bukatu:** 00:26:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Gaztetan zerrategian eta soroan lan egiten zuten. Aitak eta amak soroan lan egiten zuten goizeko bostetan jaikita eta zazpi eta erdietarako etxeratzen ziren. Abereak ere izaten zituzten. Erreterriako errota eraman zuten artoa ehoteko. Bost kilo eraman eta lau ekartzen zituzten, hori izaten zen tratua. Taloa eta esnea eta morokila jaten zituzten. Plazan saldu ezineko sagarrak ekartzen zizkien osabak.</p>

9. Erreterriako errota

- **Erref:** GER-039/013
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:26:28. **Bukatu:** 00:27:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Erreterriako errota non zegoen kontatzen du. Gernikako Zubi Nagusiaren ondoan irtetzen zen erreka.</p>

10. Aste Santua Gernikan

- **Erref:** GER-039/014
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:27:57. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

Eguen Santu arratsaldean lehenengo Mesedeetara joaten ziren eta ibilbidea egiten zuten. Prozesioa egiten zen Andra Mari Elizatik. Bi anaiak ibiltzen ziren. Ibilbidea aipatzen du. Bariku Santuko eguerdian zazpi hitzen sermoia izaten zen, hiru ordu inguruz irauten zuena. Tabernak, musika... dena debekatua egoten zen.

11. Andra Marin monagilo

- **Erref:** GER-039/015
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:30:01. **Bukatu:** 00:32:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Monagilo izan zen gaztetan urte askoan Andra Mari elizan. Sei apaiz inguru zeuden Gernikan orduan. Zortzi edo hamar monagilo izaten ziren. Karmelitetan bertan izaten zuten dotrina, bertako kapilauarekin. Errespetua ez, apaizeri beldurra zieten. Dena erdaraz egiten zuten. Hermana Maria zen beraien irakaslea.

12. Monagiloen zereginak eta janzkera

- **Erref:** GER-039/016
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:32:57. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Monagiloek meza ematen laguntzen zieten apaizei. Meza latinez eta sermoia gazteleraz ematen zuten. Ez zieten dirurik ematen. Apaiz batzuek gerora propina ematen hasi ziren. Tunika bat janzten zuten, apaizari ondo hitz egin behar izaten zioten eta kanpaiak ondo jo. Apaiz izan ziren Don Secundino, Don Valdomero, Iturrran, Don Jose Luis...

13. Garizuma eta bulak

- **Erref:** GER-039/017
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Bezperako gauerditik ezin izaten zuten jan eta edan elizara aurretik. Garizuman barikuetan bijilia eta baraua eta asteazkenetan bijilia egiten ziren. Urte guztian bulak erosten zituzten. Ordaindu ezker, Garizuman libre. Anekdotak bat kontatzen du. Apaizek seme-alabak izaten omen zituzten ezkutuan.

14. Jaietan arratoi lasterketa eta erregeetan opariak

- **Erref:** GER-039/019
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:41:34. **Bukatu:** 00:43:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Jaietan Bar Brasil zeukan portugaldar batek "La Ratita India" antolatzen zuen, arratoien lasterketa. Erregeetan opariak jasotzen zituzten Juanita Mugarteren dendatik anaiaren amabitxi eta aitabitxiek ordainduta.

15. Emaztea ezagutu zuenekoa

- **Erref:** GER-039/021
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:45:14. **Bukatu:** 00:49:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Emaztea nola ezagutu zuen. Hamazazpi urte ingururekin ezagutu zuen eta zazpi urtez nobio izan ziren. Lauretan zinera joan, gero paseoan ibili, Bar Azulera joan edo Café Lizeora eta etxera.

16. Zinera eta paseoan etxekoen diruarekin

- **Erref:** GER-039/022
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:49:14. **Bukatu:** 00:52:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Zinean hamazortzi urtetik gorakoentzat ematen zituzten pelikulak. Gero paseatzen ibiltzen ziren denak. Orduan kafetegietan jende asko ibiltzen zen. Dirua etxekoei eskatu behar izaten zien, baita eztei-bidairako ere, etxeko zerrategian lan egiten baitzuen.

17. Etxe ingurua lehen

- **Erref:** GER-039/025
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:56:32. **Bukatu:** 00:58:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bere etxe ingurua zelakoa zen kontatzen du.

18. Orduko trenak, merkantziaz betea eta motela

- **Erref:** GER-039/026
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:58:44. **Bukatu:** 01:00:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Zerrategia eduki zutenean, trenbidera errail bat zeukaten bertatik. Merkantzia asko ibiltzen zen Gernikako trenean. Lehenengo lurrunezko trena izaten zen eta 1957 inguruan elektrikoa inauguratu zuten. Trena orduan oso motel ibiltzen zen.

19. Autobusak bi pisukoak

- **Erref:** GER-039/027
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:00:47. **Bukatu:** 01:01:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Autobusak bi pisukoak izaten ziren. Bermeotik eta Lekeitiotik etortzen ziren. Posta autobusez eramaten zen.

20. Anaiak bizikletaz, aita kotxez

- **Erref:** GER-039/028
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:01:43. **Bukatu:** 01:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Bizikletaz anai guztiak ibiltzen ziren. 1958an lehenengo kotxea erosi zuen aitak, bigarren eskuko bat. Egurrezkoa zen; aurreko zatia bakarrik txapazkoa. Segundok alokatzen zituen bizikletak. Aitak gerra aurrean izan zuen motorra baina gerraostean konfiskatu egin zioten.

21. Laidara eta Gorlizera hondartzara urtean behin

- **Erref:** GER-039/029
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:03:57. **Bukatu:** 01:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Urtean behin Laidara joaten ziren hondartzara, San Inazio egunean. Kamioia egokitu eta denak joaten ziren. Eskolatik Gorlizko hondartzara joaten ziren urtean behin aurrezki kutxak lagunduta. Zehaztasunez gogoratzen ditu irteera haiek.

22. Gernikako zineak

- **Erref:** GER-039/030
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:06:10. **Bukatu:** 01:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Lehenengo zinea Tiloetakoa izan zen. Non zegoen kontatzen du. Jabearentzat lan egiten zutenez, umeentzako filmetan dohainik sartzzen ziren. Hura itxi zutenean eta neska-lagunarekin Lizeora joaten zen. Parrokiako zinea geroagokoa zen.

23. Elizan gizonak eskuman eta emakumeak ezkerrean

- **Erref:** GER-039/031
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 01:09:02. **Bukatu:** 01:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Elizan ohitura zegoen gizonak eskuman eta emakumeak ezkerrean jartzeko. Familiak batera joandakoan ez zen halakorik egiten. Nabarnizen nabarmena zen eta Ibarrurin oraindik ere hala da.

24. Etxeko euskara

- **Erref:** GER-039/033
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:09:59. **Bukatu:** 01:11:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Gernikako hizkera desberdina iruditzen zaio inguruko herriekiko. Etxeko euskara ikasi zuten eta horixe erabili.

25. Batxilergoa lehenengoz euskaraz

- **Erref:** GER-039/034
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:11:37. **Bukatu:** 01:13:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Inazioren seme zaharrenaren adinekoak izan ziren batxilergoa euskaraz egiten lehenengo belaunaldia. Guardia Zibila etorri zitzaien behin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com